

## ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN OSAKETA

Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarearen maiatzaren 21eko 6/2004 Legeak Administrazio Kontseiluaren osaketa zehazten du bere 9.1. artikuluan. Presidenteak eta gutxienez 8 eta gehienez 10 mahaikidek eta idazkariak osatuko dute.

*Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioko Sailen sorkuntzari, desagerpenari eta aldaketari eta horien egitekoak eta jarduketa eremuak ezartzeari buruzko azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan oinarrituta, trenbideak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren barruan geratuko dira.*

Adierazi behar da *Lehendakariaren azaroaren 26ko 27/2016 Dekretuaren* bitartez, Arantxa Tapia Otaegi andrea izendatu zela Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailburu.

Maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen 11. artikulua kontuan izanda, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarearen presidentzia, trenbidearen alorrean eskumenak dituen saileko titularrak hartuko du bere gain, hau da, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko titularrak.

Administrazio Kontseiluko kideei dagokienez, Jaurlaritzak izendatzen eta, hala denean, kargutik kentzen ditu, trenbidearen alorrean eskumenak dituen sailaren proposamenez (9.2. artikulua). Hori horrela, urtarrilaren 17ko 15/2017 Dekretuaren eta Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Dekretuaren bitartez, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoko Administrazio Kontseiluko kideak kentzeko eta izendatzeko akordioak hartu ziren.

Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoko Administrazio Kontseiluko idazkari nagusi gisa arituko den pertsonari dagokionez, Kontseiluak berak izendatuko du, maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen 13. artikulua xedatzen duenez.

### **Presidenteak:**

Arantxa Tapia Otaegi andrea

### **Mahaikideak:**

Antonio Aiz Salazar jauna

Mikel Gurutzeaga Zubilla jauna

Janire Bijuesca Bedialauneta jauna

Maria Aranzazu Leturiondo Aranzamendi andrea

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna

Ernesto Garcia Vadillo jauna

Pedro María Hernando Arranz jauna

Estibaliz Hernaez Laviña andrea

### **Idazkaria:**

Ainhoa Elola Aranburu andrea